

## EUSKADI, 5G SARE BERRIAK GARATUKO DITUZTENEN LEHENENGOETAKOA

- **5G Euskadi proiektua osatu duen partzuergoak 13 bazkide ditu, eta lankidetzak-akordioen bidez elkarrekin lotutako hainbat parte-hartzaile.**
- **BCSCk gidatzen duen egitasmoa 5G sareen zibersegurtasuna neurtzean datza.**
- **Segurtasun-neurriak garatu beharko dira 5G teknologia berria ezartzean zibersegurtasuna kolokan ez jartzeko.**

Denen ahotan dagoen 5G sarea haririk gabeko sareen bosgarren belaunaldia da, orain arte izan dugun 4G/LTE eboluzioaren ondoriozkoa; erantzun-denbora murrizten du datuak bidali eta bidaltzean, eta nabarmen handitzen du gailuek elkarrekin komunikatzeko ahalmena. Eboluzio horrek eskualde aurreratuenen artean jarriko du Euskadi, baita bertako enpresak eta teknologia-guneak ere.

Teknologia berri bat ezartzean nahitaezkoa da, arazorik gabeko trantsizioa ahalbidetzeko, segurtasun-neurri berriak inplementatzea, batik bat industriaren eta enpresen sektoreari dagokionez. Aipatutako sarea hedatzeko xedez abiarazi da **5G Euskadi** proiektua; era berean, bederatzi erabilera-adibide garatzea da asmoa, 5G teknologiak eskaintzen dituen ahalak eta gaitasunak baliatuz produktuak eta zerbitzuak garatze aldera. Proiektu horretan garatuko dira zenbait jarduera, hala nola *Edge* (baliabideak ertzera lekualdatzera) eta *Fog* (lainoan egindako konputazioa) kontzeptuekin eta sareak birtual bilakatzearekin zerikusia duten arazoak aztertzea, baita erabilera-mota bakoitzaren balizko errore espezifikoak ere.

BCSCk, Tecnaliaren laguntzaz, zibersegurtasunaren hainbat alderdi jorratuko dituen erabilera-adibide bat gidatu eta gauzatuko du. Horretarako, 5G sareetan dauden mehatxu nagusien eredu bat egingo da, baita beste erabilera-adibide sektorial batzuei buruzko ariketa praktikoak ere. Pilotu bereziki interesgarria da, 5Gan Edge Computing (MEC) delakoa inplementatzera bideratua; mehatxuen ereduarekin batera, aurrez aipatutako alderdiei buruzko segurtasun-probak egingo dira.

### Zibersegurtasuna, gainerako sektoreentzat funtsezkoa

BCSCri dagokion erabilera-adibidearen ardatza ez da izango zibersegurtasun-

info@bcsc.eus | 945 236 636

Arabako Teknologia Parkea  
Albert Einstein. 46-3. – Ed. E7 01510  
Vitoria-Gasteiz



teknologiei lotutako negozio-eredu bat planteatzea, **gainerako erabilera-adibideak gaitzeko era egokian jardutea** baizik. Izan ere, **haitako bakar batek ere ez du gutxieneko arrakasta komertziala lortuko**, datuen eta tartearen diren pertsonen segurtasuna kolokan jar dezaketean **ahultasunak baldin badaude**.

Laburbilduz, 5Gak etorkizunean ekar ditzakeen onurak sektore guztietan ezagun bihurtzen hasiak dira, baina hiru aipa daitezke nagusiki: **zehaztasuna, ahalmena eta abiadura**. Hobekuntza horiek gertuen dugun errealitatean aplikatzea da hurrengo helburua. Hauek dira kontuan izaten ari diren erabilera-adibideak, gure eguneroko bizimoduari zuzenean eragingo dietenak:

- **Mugikortasuna:** autobus-erabiltzaileen Interneterako sarbidea emanez eta bideo-zaintzako zerbitzuei buruz, baita ibilgailuen mantentzeari buruz ere.
- **Energia:** adituen urrutiko laguntza, energiaren sektoreko azpiegitura konpondu, konfiguratu eta mantentzeko eragiketetarako.
- **Industria:** ekoizpen-prozesuen monitorizazioa eta kontrola.
- **Zibersegurtasuna:** tartean diren prozesuen zibersegurtasuna oinarritzakoa da 5G teknologia behar bezala garatzeko.
- **Sareko zerbitzuak:** 5G sarea hedatzeko ardura duten operadoreen berezko arkitekturak finkatzea eta inplementatzea. Gainera, telebistako eta banda zabaleko zerbitzuak landa-eremuetan emateko probak egingo dira, baita elektrizitatearen sektoreko azpiestazioetan 5G sarea hedatzekoak ere.

## Industria eraldatzeko proiektu bat

5G Euskadi egitasmoari esleitu zaio Estatuko Gobernuak 5G teknologia garatzeko eta ezartzeko duen laguntza-programa. Proiektu pilotu horrek **konpromisoa du Euskadiko enpresa eta teknologia-gune nagusien berrikuntza eta industria-eraldaketa sustatzeko**, eta **ekosistema zabal bateko 13 bazkide dituen partzuergo batek osatzen du**: telekomunikazio-operadoreak, sareko ekipamendu-hornitzaileak, unibertsitateak, ikerkuntza-guneak, erakunde publikoak eta enpresa pribatuak.

Ekimen bateratu horrek erraztu egingo du 5G sare bat zabaltzea (aurrekontuaren % 65) Abadiñon eta Euskadiko hiru Teknologia Parkeetan (Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba), eta 9 erabilera-adibideak garatzea (horiek osatuko dute inbertsioaren guztizkoa).

Egitasmoak Ekonomia eta Enpresa Ministerioaren menpeko Red.es erakundearen onespina du, eta 30 hilabete iraungo du. Inbertsioa 7,1 milioi eurokoa izango da, eta zati bat Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF) bidez finantzatuko da.

info@bcsc.eus | 945 236 636

Arabako Teknologia Parkea  
Albert Einstein. 46-3. – Ed. E7 01510  
Vitoria-Gasteiz

